



HEZKUNTZA SAILBURUAREN AGINDU-PROPOSAMENA: 2025-2026 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA-ITUNAK

Honen bidez jakinarazten da, behin ofiziozko proposamena jakinarazita, ikastetxeek aurkeztutako eskaerak eta alegazioak aztertuta eta irakaskuntza bakoitzari dagozkion proposamenak eginda, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarkitaulan argitaratzen dela **Agindu- proposamena**, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baita 2025-2026 ikasturterako unitateen zehaztapena eta laguntzako langile osagarriak ituntzea; bai eta hezkuntza-itunen araubiderako sarbidea ere, 2025-2026 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin.

Gobernu Kontseiluak ebazpen-agindua onartzen duenean, medio horretan argitaratuko da, eta dagozkion errekurtsoak aurkezteko epea irekiko da, hala badagokio.

Argitalpen-data posta elektronikoz jakinaraziko da.

Ane Urkiola Alustiza
Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendaria